



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko azaroaren 5ean

112 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).
- Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irrati-komunikazioko instalazioak antolatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).
- Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, liburutegi publikoen eredu berrirako plan estrategikoa, 1999an eginikoa, betetzeari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, deskalifikatu diren babes ofizialeko etxebizitzien kopuruari buruzkoa, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak egina (9. or.).
- Galdera, matrikula kostuei eta udako ikastaroen inguruko beste alderdi batzuei buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (10. or.).
- Galdera, garapenerako lankidetzarako azken bost urteotan eman diren laguntzei buruzkoa, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak egina (10. or.).
- Galdera, Parkinson gaixotasuna duten pertsonen laguntzarako aurreikusiriko jarduketei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (11. or.).

—Galdera, Europar Batzordeak “Nafarroako aratxea” deituraren onarpena bertan behera utzi duen ala ez ba ote dakien jakiteko, foru parlamentari José Luis Úriz Iglesias jaunak egin [\(12. or.\)](#).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Batasuna Parlamentuko Taldeak Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Lege proposamena, Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeak oinarritzko errenta aldarrikatzen du, besteak beste, Nafarroako herritarrek, horrela, dituzten eskubideez osotasunean baliatzeke aukera izan dezaten.

Hala ere, bai ezarritako diru kopuruak, bai prestazio hori jaso dezaketen pertsona taldea,

zeinak 9/1999 Foru Legeko 4. artikuluan eta Oinarritzko errentari buruzko apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretuan ezarrita baitaude, ez dira behar bezain handiak, hau da, ez die bermatzen nafarrei herritar gisa dituzten eskubideez osotasunean baliatzea, nahiz eta hori legearen oinarritzko printzipioetako bat izan.

Oinarritzko errentaren zenbatekoa, egun, Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 75eko dirusarreraren adinakoa da pertsona bakarrarentzat; Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 15 bigarren pertsonarentzat; Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 10 hirugarrenetik aurrerako pertsona bakoitzeko. Betiere, ezin izanen da Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 125 baino gehiago jaso oinarritzko errenta gisa.

Prestazioa jasotzeko, 65 urte baino gutxiago eta 25 baino gehiago izan behar dira, besteak beste.

Nafarroan, azken urteotan ekonomia etengabe hazten ari dela erakusten dute datu estatistiko eta ekonomikoek; 2002 urtean, aurreikusi dutenez, 3,6 inguru ere haz daiteke ekonomia.

Nafarroako kontuak lautan itxi dira superabit ekonomikoa zutela. 2000. urteaz denaz bezainbatean, Nafarroako ogasunak –aipatzekoa da– aurrekontuetan aurreikusitakoa baino hogeita mila milioi gehiago bildu ditu.

Datu horiek gogoan, egoera ekonomikoak aukera ematen du, eta behartu ere egiten du, gure gizarteko pobrezia eta bazterkeria egoerei aurre egiteko aplikatzen diren politika sozialak berrikusi eta berbideratzeko; horrela, giza- eta ekonomia-baliabide gehiago jarri beharko liriteke aipatutako berdintasun ezak desagertarazteko.

Pobrezia eta gizarte-bazterkeria horien jatorria, neurri handi batean, pertsona ugari duen baliabide ekonomikoen gabezia da: ezin dute lan duinik lortu edo, adina dela-eta, lan merkatutik kanpo daude. Pobrezia eta gizarte-bazterkeria horiek

ezin dira gainditu oinarrizko errentarentzako egun ezarrita dagoen zenbatekoarekin, eta, beraz, pertsona horien eskubideak ezin dira bermatu. Horregatik aurkeztu dugu legea aldatzeko proposamen hau: legea egoera hori hein batean samurtzen saiatzen da.

Aipatu beharra dago, baita ere, badirela pobrezia egoerak bereziki ukitzen dituen zenbait pertsona-talde, hala nola 65 urte baino gehiagoko pertsonak, emakumeak batez ere. Pertsona-talde hori, 120/1999 Foru Dekretuaren arabera, oinarrizko errenta jasotzeko aukeratik kanpo gelditzen da. Horregatik, talde horri oinarrizko errenta jasotzeko aukera ematea beharrezkoa dela uste dugu; aipatutako pertsonen aukera hori emanda, nabarmen eginen luke hobera pertsona horietako askok duen egoera ekonomiko larriak.

1. artikulua. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6koa 9/1999 Foru Legeko III. tituluko 4. artikulua ordeztu; hona ordezeko testua:

“4. artikulua. Zenbatekoa.

Oinarrizko errentaren zenbatekoek ondoko dirusarrerak bermatuko dituzte: Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 100 pertsona bakarrarentzat, Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 15 gehiago bigarren pertsonarentzat, eta Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren

100eko 10 hirugarrenetik aurrerako pertsona bakoitzeko.

Oinarrizko errenta gisa ezin izanen da, inola ere, Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 150 baino gehiago jaso.”

2. artikulua. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6koa 9/1999 Foru Legeari beste artikulua bat gehituko zaio III. titulan.

“Artikulu berria. 65 urte baino gehiago dituzten pertsonak.

Oinarrizko errentaren hartzaile izan ahalko dira 65 urte baino gehiago dituzten pertsonak, baldin eta dituzten dirusarrerak, erregelamenduz ezarritako moduan kalkulatu, 4. artikuluan ezarritakoak baino txikiagoak badira.

Pertsona horiek, jardueraren bat ezarri nahiz gero, ez dute administrazioarekin inongo akordioarik sinatu behar.

3. artikulua. Azken xedapen berria.

“Foru Lege honek 2002ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.”

4. artikulua. Azken xedapen berria.

“Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari beharrezko arauak eman ditzan xedapen berrietara egokitzeko Oinarrizko Errentari buruzko apirilaren 19ko 20/1999 Foru Dekretua.”

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2001eko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2001eko azaroaren 23ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta

145.5 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2001eko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza eta Kultura Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2001eko azaroaren 23ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145.5 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irрати-komunikazioko instalazioak antolatzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Biltzarrak, 2001eko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitatean irрати-komunikazioko instalazioak antolatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztu eta 2001eko uztailaren 12ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Foru Komunitatean irрати-komunikazioko instalazioak antolatzeko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen hori buruz irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2001eko azaroaren 23ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145.5 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarien zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Biltzarrak, 2001eko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokraten Elkar-gunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen hori buruz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza eta Kultura Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2001eko azaroaren 23ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145.5 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarien zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, liburutegi publikoen eredu berrirako plan estrategikoa, 1999an eginikoa, betetzeari buruzkoa

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 29an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak liburutegi publikoen eredu berrirako plan estrategikoa, 1999an eginikoa, betetzeari buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

JABELDURAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari:

Aurrekariak

Inbestidura eztabaidan, 1999ko uztailaren 20an egin baitzen, Nafarroako Gobernuak Lehendakariak konpromisoa hartu zuen liburutegiei buruzko lege bat onesteko legegintzaldi honetan. Hala ere, bi urte eta gehiago pasatu ondoren, Gobernuak ez du gai horri buruzko inongo ekimenik.

Gizarte batek kulturaren, hezkuntzaren eta informazioaren arloetan dituen azpiegituraren funtsezko eta bazter ezineko osagarriak dira liburutegiak; halaber, gizarte horren ondare kulturalaren parte ordezka ezina ere bada. Ideia hori, zenbait arrazoi direla medio, garrantzi handikoa da egungo gizartean:

- Pertsonen informazioa eta jakintza eskueran izateko duten oinarrizko eskubidea bermatzeko elementuak dira.

- Teknologia berrien eta globalizazioaren garapen demokratikoa bultzatzen dute; horri dagokio-

nez, kultura sustatzea jomuga duten informazioaren eta komunikazioaren teknologiei buruzko politika europarraren baitan funtsezko zeregina dute liburutegiek.

- Globalizazioaren joera osatzen dute, toki esparruan ere arreta jartzen baitute, eta arreta jartzen, baita ere, hizkuntza eta kultura anitzeko gizartearen loratzean.

- Bilduma nazionalen garapena eta kontserbazioa bermatzen du, edozein dela ere horren forma edo edukia.

Hainbestekoa da gai horien garrantzia, non UNESCOk, 1994an, liburutegi publikoari buruzko manifestu bat onetsi zuen; Europako Kontseiluak eta EBLIDAK ere, 2000 urtean, liburutegiei buruzko legedi eta politikak Europan izan beharreko jarraibide batzuk ezarri zituzten.

Esan beharra dago, Espainiako estatuan, Nafarroak izan ezik, penintsulako autonomia erkidego guztiek dutela liburutegiei buruzko legedia.

Horrek erakusten duena da, gure ustez, bai pertsona guztien funtsezko eskubideekin bai eskubide kolektiboekin zerikusia duen gai batean ez dela batere arretarik jartzen. Pertsona guztien funtsezko eskubideekin du zerikusia, horrelako eskubidea baita jakinduria, pentsamendua, kultura eta informazioa eskueran mugarik gabe izateko eskubidea; eskubide kolektiboekin du zerikusia, orobat, zerikusia duelako gure herriaren ondare artistiko, historiko eta kulturalaren parte diren materialen zaintze eta garapenarekin.

Egia da Nafarroan aspaldi samarreko urteotan badela liburutegi publiko eta eskola liburutegien sare bat; baina, egia da, baita ere, denborak aurrera egin duen heinean, sistema asko desegituratu dela. Horrenbestez, beharrezkoa da gaia arautzea, eta, horrela, batetik, oinarriak jartzea sistema planifikatzeko, sortzeko, antolatzeko, funtzionarazteko eta koordinatzeko, eta, bestetik,

arautze horren bidez, liburutegien funtzionamendua ahalbidetuko duten zerbitzuak bermatzea eta, informazioaren, jakinduriaren eta teknologia berrien gizartearen baitan, herritar guztiek informazioa eskueran izan dezaten bermatzea.

Horregatik, gure talde parlamentarioak, Nafarroako Gobernuak gai honetan erakusten duen ekimen falta ikusita, jabeldura aurkeztu du hurrengo ezagutzeko:

- Liburutegi publikoen eredu berrirako plan estrategikoaren betetze maila –plan estrategikoa 1999an egin zen.

- Nafarroako liburutegiei buruzko foru lege proiektuaren prestaketa zer fasetan dagoen.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

F saila:
GALDERAK

Deskalkifikatu diren babes ofizialeko etxebizitzaren kopuruari buruzko galdera*FORU PARLAMENTARI FERNANDO VIEDMA MOLERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak deskalkifikatu diren babes ofizialeko etxebizitzaren kopuruari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molerok, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengo babesean, galdera hau aurkeztu diot Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari idatziz erantzun diezadan.

Babes ofizialeko etxebizitzaren borondatezko deskalkifikaziorako epeak arautzen dituen maiatzaren 29ko 13/2001 Foru Legeak dioenez –ekainaren 8ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen legea–, babes ofizialeko etxebizitza baten jabeek, kalifikazioa 1999ko abenduaren 30a baino lehenago jasoa badu, horren borondatezko des-

kalifikazioa eskatu ahalko dute kalifikazioa eman zenetik bost urte iraganik, lege horrek ezarritako lau kasuetan betiere.

Legearen onespeneraren inguruan polemika handia piztu zen: gobernuak aurreikuspen bat zuen deskalkifikatuko ziren etxebizitzaren kopuruari buruz, eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, aldiz, beste aurreikuspen bat. Horrela, exekutiboak zioenez, lege hori onetsi eta “deskalkifikazioa masiboa izanzen zen, eta horrek iruzurra ekarriko zuen”; sozialiston ustetan, ez ziren 300 baino gehiago izanzen deskalkifikatutako etxebizitzak, “hori baitzen etxebizitzaren egokitzapena beharko zuen familia kopurua”.

Horregatik, honako galdera hauek egin ditut:

1. Ekainaren 8tik, babes ofizialeko zenbat etxebizitza deskalkifikatu dira 13/2001 Foru Legea oinarri hartuta?

2. Zenbat eskaera baztertu dira eta zergatik?

3. Aipatutako legeak bi xedapen gehigarri ditu: lehena, babes ofizialeko etxebizitzaren arloko ikuskapen erregelamenduari buruzkoa, eta, bigarrena, lagatutako etxebizitzak eskaini, balioetsi eta berriz esleitzeko prozedura ezartzeko erregelamenduari buruzkoa. Garatu al ditu Nafarroako Gobernuak bi xedapen gehigarri horiek?

Iruñean, 2001eko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Fernando Viedma Molero

Matrikula kostuei eta udako ikastaroen inguruko beste alderdi batzuei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak matrikula kostuei eta udako ikastaroen inguruko beste alderdi batzuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Nafarroako Parlamentuko Errege-

lamenduak xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin diot Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura departamentuari idatziz erantzun diezadan:

2001eko uztailaren 18an galdera egin nion orain zuzentzen natzaion departamentuari; galdera horren bidez, informazioa eskatzen nion Nafarroako Gobernuak antolatutako udako ikastaroei buruz. Igorri zaidan erantzuna eskasa iruditu zaidanez, hau jakin nahi dut

1. Ikastaro bakoitzaren matrikulak izan duen kostua, xehekatuta.

2. Gobernuak ikastaro bakoitzerako ordaindu-tako diru kopuruak, xehekatuta.

3. Ikastaro bakoitza zer hizkuntzatan eman den.

Iruñean, 2001eko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Garapenerako lankidetzarako azken bost urteotan eman diren laguntzei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNÁNDEZ ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak garapenerako lankidetzarako azken bost urteotan eman diren laguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernándezek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkeztu diot Nafarroako Gobernuko

Gizarte Ongizate Departamentuari idatziz erantzun diezadan.

– Garapenerako lankidetzarako azken bost urteotan eman diren laguntzek zenbat egiten dute eta urteko barne-produktu gordinaren zer ehuneko dira?

– Zer erakundek jaso dituzte dirulaguntza horiek, zenbat jaso du bakoitzak, zer proiektu motek jaso dituzte dirulaguntzak eta zer herrialde-takoak dira?

– Nafarroako aurrekontu orokorretan garapenerako lankidetzarako helburu duten kontusail edo kontusailetatik zer ehuneko bete da?

– Urteren batean laguntzen % 100 ez bada bete, zergatik ez da bete?

Iruñean, 2001eko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

Parkinson gaixotasuna duten pertsonen laguntzarako aurreikusiriko jarduketei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Parkinson gaixotasuna duten pertsonen laguntzarako aurreikusiriko jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan

xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkeztu diot Osasun Departamentuari idatziz erantzun diezadan.

– Zer jarduketa ditu aurreikusita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak parkinson gaixotasuna duten pertsonen laguntzarako?

– Aurreikusi al du Osasun Departamentuak neurri berririk hartzea gaixo horiei laguntza emateko? Hala bada, zer neurri dira horiek?

– Ba al da egun gai horri buruzko hitzarmenik erakunde edo osasun-administrazioen batekin?

– Edonola ere, parkinsona duten gaixoentzako tratamendurik komenigarriena ebaketa denetan, zer konponbide ematen ditu gure erkidegoko osasun zerbitzu publikoak parkinsona duten gaixoei duten behar horri erantzuna emateko?

Iruñean, 2001eko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Europar Batzordeak “Nafarroako aratxea” deituraren onarpena bertan behera utzi duen ala ez ba ote dakien jakiteko

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ÚRIZ IGLESIAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Luis Úriz Iglesias jaunak Europar Batzordeak “Nafarroako aratxea” deituraren onarpena bertan behera utzi duen ala ez ba ote dakien jakiteko egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion..

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Luis Úriz Iglesiasek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 186. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, galdera hau egin dut, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion Nafarroako Gobernuak behar den kontseilariak.

Nafarroako Aratxea Adierazpen Geografiko Babestua etenik gelditu dela jakinarazi al zaio Nafarroako Gobernuari, edo ba al du horri buruzko informaziorik? Izan ere, Europako Batzordeak ez du argitaratu Nafarroako Aratxea Adierazpen Geografiko Babestuarentzako behin-behineko bai-

mena behin betikoa izan zedin Nafarroako Gobernuak eginiko.

Nafarroako Aratxeak marka ziurtatua izateari utziko lioke, haragi freskoen salmenta bere baitan hartzen duten deituri ezarritako arauak ez bailituzke beteko; halaber, ezinen litzateke AGP horren publizitaterik egin, eta kontseilu arau-emai-leak ezinen luke ziurtagiririk eman, Nafarroako Aratxea ez bailitzateke AGP izanen. Ez al lirateke horiek, akaso, ondorioak? Hala izanez gero, zer pentsatu du egitea Nafarroako Gobernuak?

Arrazoiak:

2001eko urriaren 25ean, bertako egunkari batean informazio hori eman zen. Orobat, informazio horrek zioenez, 63 abeltzainek salaketa aurkeztu zuten deitura horrek zenbait irregulartasun izateagatik, hala nola haragiak eginiko bidearen aztarnei buruzko erkidegoko, estatuko eta Europako arauak ez betetzea; bestalde, Labiano-ko etxaldean izaniko entzefalopatia espongiforme kasuen ondoren, zalantzan jarri dira animalientzako pentsuak egiteko erabiltzen diren substantzien ikuskaketa- eta kontrol-programak.

Informazio horrek alarma soziala piztu dezake berriro ere, eta hori saihesteko bidea, nire ustez, eskatutako informazioa lehenbailehen eta osorik ematea da; aldi berean, Nafarroako Gobernuaren erreakzio lasterra beharko litzateke, eta horixe da galdera hau egin izanaren arrazoiak.

Iruñean, 2001eko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: José Luis Úriz Iglesias

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---